

Oiartzun

Urkabera IV. Igoera bihar jokatu da

GOIZARIN OIARTZUN.

Viernes, 11 octubre 2019, 00:30



Intxixu Trail-Girizia Mendi Lasterketa Taldeak antolatuta, Urkabera IV. Igoera jokatu da bihar 17:00etan. Lasterketa motz bezain gogorra da, izan ere 1,6 kilometroko ibilbidean 191 metroko igoera metatua dauka. Urkabe mendiko gurutzean egongo den zintzarriraino joan beharko dute korrikalariak. Bidegurutzetan jendea egongo bada ere, ibilbidea markatuta topatuko du korrikalariak.

Irteera ofiziala Gaetxen (Bidegorrian, Skate Park-aren aldamenean) izango da, baina 16:45ean Doneztebe plazatik irteera neutralizatuan joango dira korrikalari guztiak irteera gunera.

Izen ematea www.herrikrosa.eus helbidean egin daiteke, 5 euroren truke. Egunean bertan ere aukera izango da, 15:30etik aurrera Killirikupen. Bertan egongo dira kontsigna erabilgarri ere. Era berean, izen ematearekin batera, korrikalariak Garagardo Festaren eskutik txarro bat eta garagardo baterako balea jasoko dute Dixiduko poltsarekin batera.

Korrikalari guztiek aseguruia izango dute eta DYA ere bertan egongo da. Amaieran, kiroldegiko dutxak erabiltzeko eskubidea izango dute (20:00 arte).

Sari banaketa arratsaldeko 18:15ean ospatuko da Oiartzungo Doneztebe plazan, honako sariekin: lehen hiru emakume eta gizonezkoentzat eta lehenengo emakume eta gizonezko oiartzuarrek izango dute saria.

La mejor selección de noticias en tu mail

Recibe las principales noticias, análisis e historias apuntándote a nuestras newsletters

Apúntate